

**38** » Herri nortasunaz gogoeta egiten duen afixa jarri du Oier Etxeberria artistak Venezian

**39** » Fermin Leizaola: «Ondare materiala ez da objektu hutsa, arima ere baduela esan daiteke»



Carlos Sobera (lurrean) eta Andoni Delarigne, Estibalitz Sarasola, Amaia Aberasturi eta Nikola Zalduegi, atzo, eszena bat filmatzen. MARISOL RAMIREZ / ARP

‘Zigortzaileak’ lana Sestaon ari dira filmatzen egunotan; ‘bullying’-ari buruz Arantza Ibarrek eta Alfonso Arandiak zuzendutako umeentzako abenturazko komedia da.

# Adiskidetasunaren balioa

**Irene Berro** Sestao

Eguzkitik babestuta, Barakaldo eta Sestao lotzen dituen zubiaren azpian ari dira filmatzen *Zigortzaileak* pelikularen sekuentziatiko batzuk, Galindo ibaiaren ondoan, goizez zein arratsalde, atsedean hartzeko ia tarterik gabe. Goizean filmaketak luze jo zuen atzo, eta bazkaltzetik uste baino beranduago itzuli ziren aktore, zuzendari zein talde tekniko profesionalak. 17:00 aldera ekin zioten berriro ere filmatzeari. Aurrena, Fernando (Nikola Zalduegi aktorea) eta haren aitari (Carlos Sobera) eraso egiten dieteneko eszena filmatu zuten *zigortzaileek*, alegia, Leirek (Amaia Aberasturi) eta Leok (Andoni Delarigne). Zubipean zeuden zain gaztetxoak, eta Arantza Ibarra eta Alfonso Arandia zuzendarien aginduak entzun orduko jokatu zuten aktore.

Ikasturteak ez du etenik izan gaztetxoentzat. Baina ez die askorik axola. Areago: primeran pasatzen ari direla diote. «Oso dibertigarria izaten ari da», adierazi du bizitasun handiz Zalduegik, filmaketan barruratu aurretik. Aberasturi, Sarasola eta Delarigne

ne lankide eta lagunak harekin daude, izozki bana miatzatzen, kazetarien galderei erantzuten dieten bitartean. Umeen arteko jazarpena, *bullying*-a, jorratzen du Ibarrek idatzitako filmak, baina ez du ezelangoikuspegi dramatikorik. Giro horretatik aldenduta ari dira lanean pelikulako aktoreak; komedia filmatzen ari baitira: abenturazko komedia, zehatz-mehatz.

Irainduak eta mehatxatuak izateaz nazka eginda dauden nekato bik emango diote hasiera pelikulak kontatzen duen istorioari, Leire eta Sandra pertsonaiek. Eskolan jaun eta jabe diren haur taldearen, *menderatzaileen*, presiopean bizitzeaz aspertuta, *zigortzaileen* taldea eratzea erabakiko dute. Eta berehala batuko zaie Leo. Baionatik etorri berria da, eta ez du bere lekua aurkitzen eskolan. Ondorioz, hari ere jazaritzen diote *menderatzaileek*.

*Zigortzaileek*, hortaz, beren kabuz ekitea, eta *menderatzaileek* beren tokian jartzea izango dute helburu. Alegia, eskolako haur ustez ahulak jipoitzen dituzten horiei maltzurkeriak egingo dizkiete, jokaldi makurrak, eskolako ume guztien aurrean barregarri eta lotsagarri uzteko, eta beren modura, inori ezin diotela jazarri

ulertarazteko. Horretarako, talde gisa bereiziko dituen jantziekin mozorrotuko dira *zigortzaileak*. Leirek gudu antzeak menderatzen ditu, eta Sandrak, era askotako dantzak. Leo, berriz, ikaragarri ondo moldatzen da teknologia berriekin. Trebetasun horiek guztiak baliatuko dituzte *menderatzaileei* aurre egiteko.

Filmak mezu argia duela dio Ibarrek. «Umei elkartzeko deia egin nahi diegu, adiskidetasuna lehenesteko, eta jazarpenari batasunaren indarrak aurre egiteko». Horregatik erabaki du ukitu dramatikorik ez ematea pelikulari. «Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioaren aldeko apustua da; filma ikusita, beren artean gaiaren inguruko elkarrizketa zintzoa sortzen bada, eta gaia naturaltasunez eta zentzuz lantzeko balio badu, nire helburua betetzat emango dut», adierazi du zuzendari eta gidoilariak.

**Estreinaldia, Gabonetan**

Umeekin lan egitea «ederra» izaten ari dela dio, baina tarteka «nekeza» ere bai. «Hasieran oso urduri zeuden, baina egunek aurrera egin ahala, lasaituz joan dira, konfiantza eta erraztasuna hartzen». Ez diote hutsik egin Ibarriari. «Halakoak nahi nituen; filma idazte-

an oso argi neukan nolako aktoreak behar nituen, itxuraz ere imajinatu egiten nituen».

Loli Astoreka aktorea arduratzen ari da gaztetxoak gobernatzeaz, hara-hona eramateaz eta aholkuak emateaz. Filmean, Lurdes irakaslearen rola jokatzeko du halaber, eta, dioenez, lanean ari direla, sarri askotan fikzioa eta errealitatea nahasi egiten dituzte umeek. «Halakoetan nire lana muga zein den azaltzea da». Nolanahi ere, aktore «apartak» direla dio.

Interpretatzen duen irakaslearen pertsonaiari buruz, berriz, noizbehinka etsiak harturiko emakumea dela azaldu du. «Egoerak gainezka egiten dio, baina gurasoekin eta zuzendaritza taldearekin lanean arituko da».

Iragan ekainaren 28an hasi ziren *Zigortzaileak* filmatzen, Portugaleteko Zunzunegi institutu. Han filmatu dute pelikularen gehiena, euskarri digitalean, baina sekuentzia batzuk Berangon eta Barakaldon osatu dituzte. Orain, berriz, Sestaon ari dira lanean. Kaiku arraun taldearen egoitza hartu dute lantokitza. Gorputz eta arima ari dira lanean, eta, dena ondo bidean, Gabonen bueltan, 2010. urte hasieran estreinatuko dute pelikula.

## → Laburrak

### Tim Robbinsek zabalduko du Gasteizko jaialdia

**ANTZERKIA** » Tim Robbinsek zuzendutako 1984 antzezlanak zabalduko du Gasteizko antzerki jaialdia, Principal antzokian, urriaren 10ean eta 11n. Aktore eta zuzendari estatubatuarra Gasteizera etorriko da irailaren 29an, obraren nondik norakoak azaltzera. 33 antzezlanek osatuko dute antzerki jaialdiaren egitaraua. Azaroaren 29a bitartean iraungo du.

### Katia Guerreiro Bidasoa Folk jaialdian izango da

**MUSIKA** » Katia Guerreiro fado kantaria izango da IX. Bidasoa Folk jaialdiko izen nagusietako bat. *Fado* diskoa aurkeztuko du kantari portugaldarrak. Abuztuaren 21etik 23ra egingo da jaialdia, Hendaian, Irunen eta Hondarribian. Guztira bederatzikontzertu izango dira, eta horien artean, Guerreirorenaz gain, As 3 Marias, The Silk String eta Le Vent du Nord taldeenak izango dira.

### Txinako film batek itxiko du Veneziako Mostra

**ZINEMA** » Fruit Chan eta Ciu Jian zuzendarien *Chengdu, wo ai ni* filmak itxiko du Veneziako 66. Mostra, irailaren 12an. Chengdu hirian kokaturiko bi maitasun istorioak osatzen dute filmaren haria. Istorio bakoitza, ordea, garai batean girotuta dago, bata 1976an gertatzen da tea hartzeko etxe batean; beste istorioak dantzari bat du protagonista, 2029. urtean.

### Jazza entzungo da Aste Nagusian Guggenheimen

**MUSIKA** » Guggenheim museoak nazioarteko *Artea eta Jazz Gauak* izeneko emanaldi zikloa eskainiko du Bilboko Aste Nagusian. Wendell Brunious Quartet, Jorge Rossy, Mark Turner & Ben Street, Albert Bover Trio eta Itxaso ariko dira zuzendutako museoako atarian, abuztuaren 18tik 21era bitartean, hurrenez hurren.

### Jacksonen medikuaren etxea miatu dute

**MUSIKA** » AEBetako Drogaren Aurkako Departamentuak (DEA) Michael Jacksonen medikuaren etxea miatu zuen atzo, Las Vegasen. Joan den astean haren bulegoak arakatu zituen. Jacksonen balizko hilketari buruzko ikerketen erdigunean dago Conrad Murray medikua.